


Elurra



Eguraldi iragarpena Pirinioetan

Euskal Herriko Pirinioak

Egun hauetan eguraldia ez da asko aldatuko. Haizeak iparraldetik joko du, oso gogor. Euria eta zeru estaliak izango dira nagusi asteburu honetan ere. Elurrari dagokionez, 200-500 metrotik gora egingo du, baina oso litekeena da eremu horretatik behera ere egitea. Arette-La Pierre Saint Martingo eski estazioan elur dezente egongo da.



Aragoiko Pirinioak

Candanchu, Astun, Formigal, Panticosa eta Cerler, Aragoiko Pirinioetako eski estazioak, elurrez gainezka egongo dira berriz ere asteburu honetan. Hala, pista ia gehienak irekita egongo dira, eta igogailuak martxan. Elurrari dagokionez, hauts modukoa izango da, eta 30 eta 220 zentimetro bitarteko geruza izango du.



Okzitaniako Pirinioak

Gourette, Cauterets, Luz-Ardiden, Bares-La Mongie, Piau-Engaly eta Saint Lary-Soulan Okzitaniako Pirinioetako eski estazioetan ere nahiko elur egongo da, eta eskia gustuko dutenek irristatzeko kilometro ugari izango dituzte. Elurra bi kasetakoa izango da: zapaldua eta gogorra. Geruza, aldiz, 30 eta 220 zentimetro bitartekoa izango da.



Kataluniako Pirinioak

Pirinioetako beste eremuetakoak bezala, Kataluniako eski estazioak elurrez gainezka egongo dira asteburu honetan. Ia pista guztiak irekita egongo dira, eta ia igogailu guztiak martxan. Elurra hauts modukoa izango da, eta elur geruza, 40 eta 235 zentimetro bitartekoa. Beraz, eskiatzaileek eremu benetan aproposa aurkituko dute Katalunia aldean.



Andorrako Pirinioak

Esan beharrik ez dago Andorrako Pirinioetako eski estazioak ez direla salbuespena eta elurrez gainezka egongo direla berriz ere asteburu honetan. Pal Arinsalen itxita dauden bi igogailu alde batera utzita, beste estazioetako pista eta igogailuak irekita eta martxan egongo dira. Elurra hauts modukoa izango da, 65 eta 180 zentimetro artekoa.

Estazioak

	Sarrerak	Altuera		Pistak Erremontek			Km.	Elurra	Lodiera	Azken elur	Prezioa	Informazioa
		Minimoa	Maximoa									
ALPINA	1 Candanchu	Irekita	1.560 m.	2.400 m.	58/45	24/23	59/36	Hautsa	90-150		27 euro	(0034) 974 373192
	2 Astun	Irekita	1.700 m.	2.300 m.	50/46	14/14	40/36	Hautsa	120-220		27 euro	(0034) 974 373034
	3 Formigal	Irekita	1.510 m.	2.250 m.	54/52	22/21	57/51	Hautsa	90-215		27 euro	(0034) 974 490049
	4 Panticosa	Irekita	1.140 m.	2.200 m.	38/34	14/13	34/26	Hautsa	30-150		25 euro	(0034) 974 487248
	5 Cerler	Irekita	1.500 m.	2.600 m.	45/38	18/16	52/41	Hautsa	70-150		24 euro	(0034) 974 551111
	6 Boi Taull	Irekita	2.020 m.	2.750 m.	40/40	15/15	43/42	Hautsa	105-160		21 euro	(0034) 973 414660
	7 Baqueira Beret	Irekita	1.540 m.	2.600 m.	54/54	28/28	88/88	Hautsa	155-235		33 euro	(0034) 973 639025
	8 Port-Ainé	Irekita	1.650 m.	2.440 m.	32/29	9/8	43/36	Hautsa	40-160		25 euro	(0034) 973 620325
	9 Pal-Arinsal	Irekita	1.550 m.	2.560 m.	41/39	29/29	63/59	Hautsa	65-140		21 euro	00 376 737000
	10 Soldeu El Tarter	Irekita	1.710 m.	2.560 m.	52/52	32/32	92/92	Hautsa	80-180		29,50 euro	00 376 890500
	11 Pas de la Casa-Grau Roig	Irekita	2.050 m.	2.640 m.	56/56	31/31	100/100	Hautsa	130-150		29,50 euro	00-376 862515
	12 Masella	Irekita	1.600 m.	2.200 m.	42/37	13/11	59/50	Hautsa	40-100		27,50 euro	(0034) 972 890053
	13 La Molina	Irekita	1.500 m.	2.100 m.	40/40	15/15	50/50	Hautsa	35-80		27,50 euro	(0034) 972 892164
	14 Arette-La Pierre St. Martin	Irekita	1.650 m.	2.200 m.	18/13	16/7	22/14	Gogorra	60-100		20 euro	0(033)5 59662009
	15 Gourette	Irekita	1.400 m.	2.400 m.	28/19	19/10	30/20	Gogorra	30-190		24 euro	0(033)5 59051217
	16 Cauterets	Irekita	1.800 m.	2.500 m.	24/20	16/10	35/28	Zapaldua	85-200		21 euro	0(033)5 62925027
	17 Luz Ardiden	Irekita	1.700 m.	2.500 m.	30/30	15/15	60/60	Zapaldua	95-165		24 euro	0(033)5 62928058
	18 Bares-La Mongie	Irekita	1.750 m.	2.550 m.	70/34	45/28	100/50	Gogorra	60-205		25 euro	0(033)5 62919415
	19 Piau-Engaly	Irekita	1.420 m.	2.500 m.	35/21	19/12	40/30	Gogorra	115-220		24 euro	0(033)5 62396169
	20 St. Lary-Soulan	Irekita	1.700 m.	2.450 m.	51/46	31/28	120/100	Gogorra	70-170		24 euro	0(033)5 62395081
Valdezcaray	Irekita	1.600 m.	2.200 m.	12/9	7/6	12/7	Hautsa	50-150		22 euro	(0034) 902350236	
NORDIKOA	21 Aralar	Itxita	1.100 m.	1.350 m.							-	(0034) 948 391000
	22 Abodi	Irekita	1.300 m.	1.500 m.	4/4	-	25/25	Hautsa	20-70		-	(0034) 948 394002
	23 Irati	Itxita	1.350 m.	1.500 m.							-	0(033)5 59285129
	24 Larra-Belagua	Itxita	1.400 m.	1.750 m.							-	(0034) 948 394002
	25 Somport	Irekita	1.400 m.	1.600 m.	9/9	-	34/34	Zapaldua	20-95		-	0(033)5 59360021
	26 Pont d'Espagne	Irekita	1.500 m.	1.750 m.	5/4	-	36/25	Zapaldua	20-60		-	0(033)5 62926127

Badakizu?

Andorrako Pirinioetako Pas de la Casa eski estazioan argiztapen artifizialeko pista ireki berri dute, eskiatzaileek arratsalde parteko orduak ere aprobetxa ditzaten. Hamabi dorre jarri dira, eta dorre bakoitzean 75 luxeko potentzia duten fokoak jarri. Gauean probaren bat antolatzea da proiektuaren helburua.